



EUSKADIKO LANDA GARAPENeko PROGRAMA
2015-2020

**2021 urteko Betearazpen-Txostenaren
laburpena (2022.06.15)**

@osoa_euskadi 

www.euskadi.eus/osoa



ZER DA OSOA?

Euskadik 2015-2020 bitartean **landa garatzeko duen plan berria da OSOA.**

Bera da gure autonomia-erkidegoak landa garatzeko duen tresna nagusia. **Eusko Jaurlaritza** eta **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak** daude bertan partaide gisa, eta finantzatu ere lauren artean eta **FEADER funts europarraren** artean finantzatzen dute.

Lau erakunde horiek batera aritzen dira lanean, **Euskadik lehen sektorean eta landan dituen desfiorik handienei erantzutearren**. Aipa ditzagun batzuk:

- Belaunaldi-aldaketa.
- Lehen sektorearen modernizazioa.
- Berrikuntzaren eta lehiakortasunaren ideiak garatzea.

- Nekazaritza-sektoreko prestakuntza.
- Nekazaritzako elikagaien industriari laguntzea.
- Kanal askotako estrategia indartzea.
- Kalitate-bereizgarrien balio erantsia indartzea.
- Paisaia naturala eta basoen sostengarritasuna babestea.
- Landa-eremuetan oinarritzko zerbitzuak eskaintzea.
- Landa-eremuan enplegua dibertsifikatzea eta sortzea.



Euskadik lehen sektorean eta landan dituen erronka nagusiei modu integral batean erantzuteko tresna da OSOA.



Sarrera

Urtero bezala, eta FEADER funts europarrarekin finantzatutako Landa Garapeneko Programei (LGP) aplikagarri zaien Europako Erkidegoko araudia betez, LGPren Beterazpen-Txostenaren laburpena aurkezten da, 2020 ekitaldiari dagokiona.


Urteko betearazpen-txostenak Erkidegoko arauak ezarritako egitura eta eduki-formatu bati jarraituz egiten dira, eta Europako Batzordeak diseinatutako aplikazio informatiko batean kargatzen dira (SFC2014). Hala ere, publiko orokorraren artean urteko txostenak errazago ulertzeko eta OSOA Programaren esparruan egindako jardueri dagokienez gardentasuna bermatzeko, urteko txostenaren informazio garrantzitsuen laburbiltzen duen laburpen bat egiten da, eta laburpen hori publikoaren eskura jartzen da [OSOA Programaren web-orriaren](#) bidez.

LGP gizarteratzeko helburu hori betetze aldera, 2021 ekitaldiari dagokion urteko betearazpen-txostenaren laburpen hau egin da.

Ohar garrantzitsua

Urteko egikaritze-txostena FEADER funtsaren 2021 ekitaldiko ordainketa-datueta oinarrituta dago; baina ordainketa horiek, kasu gehienetan, aurreko urteetan egindako eragiketei dagozkie. Horren ondorioz, txosten honetan ematen den informazioak ez du adierazten 2021ean LGPren esparruan benetan gertatu dena, baizik eta "gauzatu" dena (alegia, FEADER funtsaren ordainketen terminoetan ulertuta).

Euskadiko LGP FEADER funtsaren urteroko bilakaera



Euskadiko LGPren aurrekontua 2015-2022

➤ FEADER Funtsa	112.291.339 €
➤ IRUE Funtsa	7.533.729 €
➤ Eusko Jaurlaritza + Foru Aldundiak	59.677.366 €
➤ Finantzaketa gehigarria (E. Jaurlaritza + Aldundiak)	160.287.332 €
➤ GUZTIRA	339.789.766 €

2021ean 40.347.814 euroko gastu publikoa gauzatu da guztira, eta horietatik 21.563.862 euro "kofinantzaketa" sistemaren bidez gauzatu dira (FEADER + kontrapartida nazionala); gastu horren 18.783.952 euro, berriz, "Finantzaketa gehigarriko" sistemaren bidez gauzatu dira (funts propioak soilik).

Kofinantziaketa-sistemaren barruan, **2021ean 14.497.944 € FEADER gauzatu dira**, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko LGPari 2014-2022 aldirako esleitutako 112,3 milioi euroen %12,9. 2021eko gastu hori, aurreko urteetan aitortutako gastuari gehituta, **guztira 84,8 milioi euroko FEADER gastu metatura iristen da**, hau da, **2014-2022 programazio-aldi osorako aurreikusitako FEADER aurrekontuarekiko %75,6ko exekuzioa**. Zifra horren arabera, Euskadiko LGP Espainiako batez bestekoaren (%59) eta Europako batez bestekoaren (%67) gainetik dago, exekuzioari dagokionez.


Oharra

- 2021an gauzatutako gastu hori aurreko ekitaldietan egindako jardueri buruzkoa bada ere, adierazi behar da **2021an zehar laguntza-deialdiak egin direla LGPko neurri guztietan, guztira 54 milioi euroko aurrekontuarekin.**
- Gainera, LGPren neurri guztien artean, **2021an 69,2 milioi euroko gastu publikoa konprometitu da**, eta kopuru horri aurreko ekitaldietan konprometitutako 226,2 milioi euroak gehituta, **2021ko ekitaldiaren amaieran guztira 295,4 milioi euroko gastu publiko konprometitua lortu da LGPren baitan.**
- IRUE funtsari dagokionez (Europar Batasuneko Berpizte-Tresna), Euskadiko LGPan 7,5 milioi daude programatuta M04 neurrian eta M13 neurrian. **2021 urteko deialdietan 2,8 milioi euro inguru konprometitu dira IRUE funtsetik**, baina urte horretan ez zen exekuziorik gauzatu oraindik.

Euskadiko LGPren aurrekontua 2015-2022

➤ FEADER Funtsa	112.291.339 €
➤ IRUE Funtsa	7.533.729 €
➤ Eusko Jaurlaritzaz + Foru Aldundiak	59.677.366 €
➤ Finantzaketa gehigarria (E. Jaurlaritzaz + Aldundiak)	160.287.332 €
➤ GUZTIRA	339.789.766 €

Euskadiko LGP – exekuzioa neurri (2021.12.31 arte)



LGP
batezbestekoa
76%

- **Programaren exekuzioa neurrien mailan** aztertzen bada, eta kontutan hartuta LGPren iraupena bi urtez luzatu dela (2022 arte) eta luzpaen horretarako FEADER funts gehigarriak barneratu direla eta baita ere IRUE Funtsak, LGPren exekutatzea koherentea eta orekatua izaten ari da, neurri guztiek programazioaren une honetan gastu-maila logikoa baitute.
- Edonola ere, **neurri batzuen exekuzioa (zehazki M08, M9 eta M19) batezbestekoaren azpitik daudela** ikusi daiteke. Honen arrazoa da alde batetik 2021 eta 2022 urtetarako FEADER funtsak gehitu direla neurri hauetan, baina baita ere aurreko urteetako deialdietan konprometitutako funtsen zati bat bertan behrea gelditu direla direla, pandemia dela medio.

Hurrengo taulan, FEADER funtsaren zuzkidurak eta 2020ko abenduaren 31 arte nola gauzatu den azaltzen dira zehatzago (neurri eta azpineurri mailan).

PDR País Vasco - Ejecución FEADER a 31.12.2021				
Medida	FEADER previsto	FEADER pagado	% pagado submedida	% pagado medida
1.1 Ayudas a la formación profesional y a las actuaciones para adquisición de capacidades	1.420.000	1.064.394	75%	76%
1.2 Ayudas a las actividades de demostración y acciones de información	340.000	302.130	89%	
1.3 Ayuda a los intercambios o visitas de corta duración en explotaciones agrarias y forestales	540.000	392.698	73%	
3.1 Ayudas a la participación por vez primera de agricultores en regímenes de calidad	500.001	458.845	92%	96%
3.2 Ayuda a las actividades de información y promoción implementadas por agrupaciones de productores para el mercado interno	1.000.000	984.049	98%	
4.1 Ayuda a inversiones en explotaciones agrarias	12.244.320	10.310.226	84%	80%
4.2 Ayuda a la inversión en transformación, comercialización o desarrollo de productos agrícolas	14.499.981	10.627.499	73%	
4.3 Ayudas a inversiones en infraestructuras destinadas al desarrollo, modernización o adaptación de la agricultura y el sector forestal	2.675.708	2.675.707	100%	
6.1 Creación de empresas por jóvenes agricultores	4.562.836	4.148.390	91%	91%
8.1 Reforestación y creación de superficies forestales	532.935	531.650	100%	62%
8.3 Prevención daños a bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes. Infraestructuras de protección en montes públicos	423.836	423.501	100%	
8.4 Restauración de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes. Infraestructuras de protección en	149.999	132.148	88%	
8.5 Inversiones para incrementar la capacidad de adaptación y el valor medioambiental de los ecosistemas forestales	91.238	85.791	94%	
8.6 Ayuda a las inversiones en tecnologías forestales y en transformación, movilización y comercialización de productos forestales	6.607.241	3.646.398	55%	
9. Ayuda a la creación de agrupaciones y organizaciones de productores	1.264.000	750.000	59%	59%
10. Agroambiente y clima (Art. 28)	12.293.764	9.555.171	78%	78%
11. Agricultura ecológica (Art. 29)	1.394.458	1.340.954	96%	96%
13.1 Pagos compensatorios en zonas de montaña	23.316.538	20.502.779	88%	88%
13.2 Pagos compensatorios en zonas distintas de montaña	612.353	611.958	100%	
16.1 Apoyo a la creación y el funcionamiento de grupos operativos de la EIP en materia de productividad y sostenibilidad agrícolas	3.794.324	2.908.397	77%	75%
16.2 Apoyo al desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías en los sectores agrícola, alimentario y forestal	3.045.330	2.281.855	75%	
16.3 Cooperación entre pequeños agentes para organizar procesos de trabajo en común y compartir instalaciones y recursos, así como pa	34.888	13.460	39%	
16.4 Ayuda a la cooperación horizontal y vertical entre los agentes de la cadena de distribución con miras a implantar y desarrollar caden	804.409	603.334	75%	
16.5 Acciones conjuntas realizadas para la mitigación o adaptación al cambio climático, así como planteamientos conjuntos con respecto	606.504	371.328	61%	
16.6 Cooperación horizontal y vertical entre los agentes de la cadena de distribución en el suministro sostenible de biomasa destinada a	86.049	61.915	72%	
16.9 Diversificación de actividades agrarias en actividades relacionadas con la atención sanitaria, la integración social, la agricultura respal	142.625	104.431	73%	
19.2 Implementación de operaciones bajo estrategia de desarrollo local participativo (EDLP)	17.822.000	9.055.539	51%	52%
19.3 Preparación e implementación actividades de cooperación del GAL. LEADER	238.000	140.728	59%	
19.4 Costes de funcionamiento y animación. LEADER	887.999	686.829	77%	
20. Asistencia Técnica	360.000	111.869	31%	31%
TOTAL	112.291.336	84.883.974	75,6%	75,6%

Lehentasunen eta "intereseke eremuen" arabera gauzatzea (1/3)


Kontuan hartuta 2014-2020 programazio-aldirako LGPak Erkidegoko araudiak ezarritako esku hartzeko logika zehatz bati jarraituz egin behar izan direla, eta jarduketak "lehetasunen" eta "intereseke eremuen" (edo foku-eremuen) arabera sailkatu direla, egokia da, halaber, programa gauzatzean izandako aurrerapenak azaltzea, parametro horien arabera. Tauletan kontsulta daiteke nola lagundu duen 2021an gauzatutako gastuak (14.497.944 euro FEADER) hainbat lehenetasun eta foku-arlotan.

PDR 2015-2020 (ejecucion 2021 por submedida y Área Focal)			
Medida	FEADER pagado 2021	Area Focal	
1.1 Ayudas a la formación profesional y a las actuaciones para adquisición de capacidades	40.635	2A	10. Agroambiente y clima (Art. 28)
	77.903	2B	
	4.110	3A	
	3.533	3B	
	15.672	5A	11. Agricultura ecológica (Art. 29)
	377	5B	
	11.915	5C	
	4.161	6A	
	0	6B	13.1 Pagos compensatorios en zonas de montaña
	0	6C	
1.2 Ayudas a las actividades de demostración y acciones de información	6.502	P4	
	48.522	6C	
1.3 Ayuda a los intercambios o visitas de corta duración en explotaciones agrarias y forestales	93.020	2B	13.2 Pagos compensatorios en zonas distintas de montaña
3.1 Ayudas a la participación por vez primera de agricultores en regímenes de calidad	59.656	3A	16.1 Apoyo a la creación y el funcionamiento de grupos operativos de la EIP en materia de productividad y sostenibilidad agrícolas
3.2 Ayuda a las actividades de información y promoción implementadas por agrupaciones de productores para el mercado interno	186.218	3A	
4.1 Ayuda a inversiones en explotaciones agrarias	3.248.748	2A	
4.2 Ayuda a la inversión en transformación, comercialización o desarrollo de productos agrícolas	159.088	3A	
4.3 Ayudas a inversiones en infraestructuras destinadas al desarrollo, modernización o adaptación de la agricultura y el sector forestal	248.439	2A	16.2 Apoyo al desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías en los sectores agrícola, alimentario y forestal
	351.039	P4	
6.1 Creación de empresas por jóvenes agricultores	1.291.842	2B	
8.1 Reforestación y creación de superficies forestales	248.466	5E	
8.3 Prevención daños a bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes. Infraestructuras de protección en montes públicos	134.415	P4	16.3 Cooperación entre pequeños agentes para organizar procesos de trabajo en común y compartir instalaciones y recursos, así como para el desarrollo o la comercialización de servicios turísticos
8.4 Restauración de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes. Infraestructuras de protección en los montes públicos	22.383	P4	
8.5 Inversiones para incrementar la capacidad de adaptación y el valor medioambiental de los ecosistemas	393	5E	
8.6 Ayuda a las inversiones en tecnologías forestales y en transformación, movilización y comercialización de productos forestales	35.992	P4	
9. Ayuda a la creación de agrupaciones y organizaciones de productores	153.022	5C	16.4 Ayuda a la cooperación horizontal y vertical entre los agentes de la cadena de distribución con miras a implantar y desarrollar cadenas de distribución cortas y mercados locales
	0	3A	
			16.5 Acciones conjuntas realizadas para la mitigación o adaptación al cambio climático, así como planteamientos conjuntos con respecto a proyectos medioambientales y prácticas medioambientales en curso
			16.6 Cooperación horizontal y vertical entre los agentes de la cadena de distribución en el suministro sostenible de biomasa destinada a la elaboración de alimentos y a la producción de energía y los procesos industriales
			16.9 Diversificación de actividades agrarias en actividades relacionadas con la atención sanitaria, la integración social, la agricultura respaldada por la comunidad y la educación sobre el medio ambiente y la alimentación
			19.2 Implementación de operaciones bajo estrategia de desarrollo local participativo (EDLP)
			19.3 Preparación e implementación actividades de cooperación del GAL LEADER
			19.4 Costes de funcionamiento y animación. LEADER
			Asistencia Técnica
			TOTAL

Lehentasunen eta “intereseke eremuen” araberako gauzatzea (2/3)

PDR 2015-2020 (ejecucion FEADER 2021 por Prioridad y área Focal)					
Prioridad	Área Focal		FEADER pagado 2021		% ejecución anual
P2: Mejorar la viabilidad de las explotaciones y la competitividad de todos los tipos de agricultura en todas las regiones y promover las tecnologías agrícolas innovadoras y la gestión sostenible de los bosques	2A	Mejorar los resultados económicos de todas las explotaciones y facilitar la reestructuración y modernización de las mismas, en particular con objeto de incrementar su participación y orientación hacia el mercado, así como la diversificación agrícola	3.587.324 €	5.050.089 €	35%
	2B	Facilitar la entrada en el sector agrario de personas agricultoras adecuadamente formadas, y en particular el relevo generacional	1.462.765 €		
P3: Promover la organización de la cadena alimentaria, incluidos la transformación y la comercialización de productos agrícolas, el bienestar de los animales y la gestión de riesgos en la agricultura	3A	Mejora de la competitividad de las personas productoras primarias integrándolas mejor en la cadena agroalimentaria a través de sistemas de calidad, valor añadido a los productos agrícolas, la promoción en mercados locales y circuitos de distribución cortos, las agrupaciones de personas productoras y las organizaciones interprofesionales	824.607 €	828.140 €	6%
	3B	Apoyo a la prevención y la gestión de riesgos en las explotaciones	3.533 €		
P4: Restablecer, conservar y mejorar los ecosistemas relacionados con la agricultura y la silvicultura	4A	Restaurar, preservar y mejorar la biodiversidad (incluso en las zonas Natura 2000 y en las zonas con limitaciones naturales u otras limitaciones específicas), los sistemas agrarios de alto valor natural, así como el estado de los paisajes europeos	5.937.587 €	6.406.723 €	44%
	4B	Mejora de la gestión del agua, incluyendo la gestión de fertilizantes y plaguicidas	9.971 €		
	4C	Prevenir la erosión de los suelos y mejorar la gestión de los mismos	459.166 €		
P5: Promover la eficiencia de los recursos y apoyar la transición a una economía baja en carbono y resistente al cambio climático en los sectores agrícola, alimentario y silvícola	5A	Mayor eficacia en el uso del agua en la agricultura	91.644 €	566.927 €	4%
	5B	Mayor eficacia en el uso de la energía en la agricultura y en la transformación de alimentos	30.940 €		
	5C	Facilitar el suministro y el uso de fuentes renovables de energía, subproductos, desechos, residuos y demás materia prima no alimentaria para impulsar el desarrollo de la bioeconomía	188.627 €		
	5D	Reducción de gases de efecto invernadero y de emisiones de amoníaco procedentes de la agricultura	516 €		
	5E	Fomento de la conservación y la captura de carbono en los sectores agrícola y silvícola y de emisiones de amoníaco procedentes de la agricultura	255.201 €		
P6: Promover la inclusión social, la reducción de la pobreza y el desarrollo económico en las zonas rurales	6A	Facilitar la diversificación, la creación y el desarrollo de pequeñas empresas y la creación de empleo	4.161 €	1.645.473 €	11%
	6B	Fomento del desarrollo local en las zonas rurales	1.592.789 €		
	6C	Mejorar la accesibilidad a las tecnologías de la información y la comunicación (TIC) así como su uso y calidad en las zonas rurales en las zonas rurales	48.522 €		
Asistencia técnica del PDR	AT		594 €	594 €	0%
TOTAL			14.497.944 €	14.497.944 €	



Lehentasunen eta “intereseko eremuen” arabera gauzatzea (3/3)




Finantzaketa gehigarria

Adierazi behar da 2021an operazio asko finantzatu direla soilik funts propioekin (hain zuzen ere 18,7 milioi euro), LGParen “finantzaketa gehigarri” bezala, aurreko urteetako deialdien bitartez neurri edo azpineurri jakin batzuetarako aurreikusitako FEADER zuzkidurak agortu direlako (*ikusi beheko grafikoa*).

Beraz, gastu hori ere aztertu behar da, bai neurrien mailan eta baita lehentasunei eta foku-arloei egindako ekarpenari dagokionez, modu metatuan (*ikusi alboko grafikoa*).



Financiación adicional (hasta el 31.12.2021)



- P2: Mejorar la viabilidad de las explotaciones y la competitividad de todos los tipos de agricultura en todas las regiones y promover las tecnologías agrícolas innovadoras y la gestión sostenible de los bosques
- P3: Promover la organización de la cadena alimentaria, incluidos la transformación y la comercialización de productos agrícolas, el bienestar de los animales y la gestión de riesgos en la agricultura
- P4: Restablecer, conservar y mejorar los ecosistemas relacionados con la agricultura y la silvicultura
- P5: Promover la eficiencia de los recursos y apoyar la transición a una economía baja en carbono y resistente al cambio climático en los sectores agrícola, alimentario y silvícola
- P6: Promover la inclusión social, la reducción de la pobreza y el desarrollo económico en las zonas rurales

Euskadiko LGParen emaitzak (1/2)

2021 urteko egikaritzearekin lortutako emaitzak (gastu publikoa: 40.347.814 €)

- ✓ **92 gazte sartu dira nekazaritza-sektorean** (%65 gizonezkoak eta %35 emakumezkoak).
- ✓ **607 inbertsio-eragiketa nekazaritza eta abeltzaintza ustiategietan** (%38 elkarteak, %47 gizonezkoen gidaritzapean eta %15 emakumezkoen gidaritzapean).
- ✓ **63 inbertsio-eragiketa nekazaritzako elikagaien industrian.**
- ✓ **100 prestakuntza-ekintza, 2.389 pertsona prestatuta** (%53 emakumezkoak eta %47 gizonezkoak) eta sektorerara hurbiltzeko 23 beka (18 gizon eta 5 emakume), 2020 urtean.
- ✓ **108 nekazari onuradun kalitate-programetan** (DOP, IGP, Ekologikoa) parte hartzeagatik (56 gizonezko, 21 emakumezko eta 31 persona juridikoa), eta produktu horien **promozioa egiteko 8 akzio.**
- ✓ **50 inbertsio-eragiketa basogintza-sektorean.**
- ✓ **Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizleen 4 elkarte** lagundu dira, guztira 158 ustiategi biltzen dituztenak.
- ✓ **24 lankidetza-proiektu;** horietatik 11 EIP-AGRI Europako Berrikuntza Elkarteari lotutako talde operatiboak dira.
- ✓ **Landa-garapeneko 190 eragiketa LEADERen, landa-ingurunean 150 enpleguren sortzea** eragin dutenak (%52 emakumezkoak eta % 48 gizonezkoak), eta lurralde arteko 3 lankidetza-proiektu LEADERen baitan.

Euskadiko LGParen emaitzak (2/2)

2021 urteko egikaritzearekin lortutako emaitzak (gastu publikoa: 40.347.814 €)

- ✓ **Nekazaritzako eta ingurumeneko 1.291 konpromiso egikaritu dira** nekazariekin, ingurumenaren eta klimaren aldeko ekintzak egiteko, **39.520 hektareako azalera hartzen dutenak** (Euskadiko nekazaritza-azalera erabilgarriaren %20,7), 2020 urteko Eskaera Bakarreko Kanpainari dagokionez:
 - *Ekoizpen integratua:* 139 konpromiso eta 1.491 ha.
 - *Sagardorako sagarrondoaren tokiko barietateak kontserbatzea:* 164 konpromiso eta 435 ha.
 - *Tokiko animalia-arrazak kontserbatzea:* 472 konpromiso
 - *Erlezaintza:* 105 konpromiso
 - *Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa:* 279 konpromiso eta 8.165 ha.
 - *Laborantza estentsiboak dibertsifikatzea:* 132 konpromiso eta 2.028 ha.
- ✓ **Nekazaritza ekologikoa egiteko 3.526 hektarea** lagundu dira; horietatik 898 hektarea azalera berria dira (2020ko EB kanpaina).
- ✓ **Zailtasunak dituzten eremuetan nekazaritza praktikatzeko 2.256 eragiketa**, guztira 48.876 hektareako estaldurarekin (2020ko EB kanpaina).
- ✓ **89 Baso-landaketa**, guztira 421 hektareako azalera batean, eta **175 operazio baso-eremuetan larrialdiak ekiditeko edo kalteak konpontzeko**, 2.713 hektareako azalera batean.

Euskadiko LGParen exekuzioa – n+3 araua

Erkidegoko araudiak ezarritako "n+3 arauaren" betetzea aipatu behar da. Arau hori, funtsean, urte jakin baterako (N urtea) esleitutako aurrekontua hurrengo hiru ekitaldietan gauzatzeko betebeharrean datza.

Arau hori aplikatuz, 2021ko itxieran gutxienez, 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteetarako esleitutako FEADER funtsaren aurrekontua gauzatu izateko betebeharra zegoen, eta hori guztia metatuta 62 milioi euro ziren. Bada, 2021ko itxiera arte FEADER funtsetik exekutatutako 84 milioi euroekin, aipaturiko ekitaldien n+3 araua ez ezik, 2019koa ere gainditu da.

	FEADER		ANUALIDAD 2016	ANUALIDAD 2017	ANUALIDAD 2018	ANUALIDAD 2019	ANUALIDAD 2020	ANUALIDAD 2021	ANUALIDAD 2022	
	PREVISTO	PAGADO								
AÑO 2015	18.701.725,00	0,00								
AÑO 2016	18.690.364,00	4.623.118,23	4.623.118,23							4.623.118,23
AÑO 2017	12.441.175,00	16.385.448,63	14.078.606,77	2.306.841,86						16.385.448,63
AÑO 2018	12.429.290,00	20.745.454,25		16.383.522,14	4.361.932,11					20.745.454,25
AÑO 2019	12.419.046,00	14.140.284,14			8.079.242,89	6.061.041,25				14.140.284,14
AÑO 2020	12.418.400,00	13.718.831,58				6.368.248,75	7.350.582,83			13.718.831,58
AÑO 2021	13.850.260,00	14.491.696,75					5.068.463,17	9.423.233,58		14.491.696,75
AÑO 2022	11.341.079,00									0,00
AÑO 2023										0,00
	112.291.339,00	84.104.833,58	18.701.725,00	18.690.364,00	12.441.175,00	12.429.290,00	12.419.046,00	9.423.233,58	0,00	84.104.833,58

Ebaluaketa (1/2)

LGParen ebaluaketa Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) egin du orain artean, eta horretarako 2015-2020 aldirako hitzarmena sinatu zen.

Halaber, 2015-2020 epealdiaren bi urteko luzapena dela eta (epealdi berriko Plan Estrategikoen hasieraren atzerapenak eragina), Ebaluaketa-plana egokitzeko beharra sortu da, epealdi hoentan gelditzen diren ekitaldietan ebaluaketa-ekintzak egingo direla bermatzeko.

Horregatik, LGPren Kudeaketa Agintaritzak aurreikusi du urtero kanpoko zerbitzuak kontratatuko dituela ebaluaketako ekintza zehatzak egiteko, hain zuzen ere 2021, 2022, 2023 eta 2024 ekitaldietarako, beti ere ekitaldi horietan FEADER funtsen gutxieneko exekuzio bat gertatzen bada.

Ebaluaketa (2/2)

- 2021ean ebaluazio-arloan gauzatutako ekintza nagusia Euskadiko LGPren **M16 (Lankidetza) neurriari buruzko txosten bat argitaratzea** izan zen. Txosten hori Euskal Herriko Unibertsitateak egin zuen, KATILU berrikuntza-agentearen lankidetza estuarekin.

Azterlan espezifikoa 16. neurriaren esparruan aurkeztu diren proiektuen tipologiari buruzko ex ante azterketa batean oinarrituta dago (guztira 189 lankidetza-proiektu, eta horietatik 121 onartu dira), eta horren osagarri dira on-line inkesta bat (107 stake-holder) eta neurri horren esparruan nabarmendutako eragile batzuei egindako elkarrizketa sakon batzuk.

Ebaluazio-txosten osoa herritar guztien eskura dago Euskal Autonomia Erkidegoko LGPri buruzko web orrian: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/osoа/inicio/>.

- 2021ean, halaber, beste ebaluazio-ekintza bat egin zen Euskadiko LGPren Jarraipen Batzordean, bideokonferentzia bidez, 2021eko abenduaren 17an. **“Ebaluazio-pilula”** bat izan zen, EHUren aurkezpen baten bidez gauzatu zena FEADER funtsen ebaluazio-sistemari buruz, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikuspegiarekin, kudeaketako eta LGPko eragileen ebaluazio-gaitasuna hobetzeko asmoz.

2021 ekitaldiko berezitasunak (1/2)

➤ COVID faktorea:

- Oro har, pandemiak sortutako egoerak moteldu egin du inbertsio-proiektuen garapena, eta, beraz, atzeratu egin dira gastua justifikatzeko eta laguntzak ordaintzeko faseak, eta horregatik ez dira guztiz bete 2020 eta 2021 ekitaldietako gauzatze-aurreikuspenak.
- Hala ere, eta nahiz eta Covid 19ak zailtasunak eragin, euskal administrazioek ahalegin handia egin dute 2020 eta 2021 urteetan laguntza-deialdiak ateratzeko, eta hain zuzen ere 40 milioi eurotara iristen diren deialdiak atera dira 2020 ekitaldian (horietako asko “finantzaketa gehigarria”rekin), eta guztira 54 miliora iristen diren deialdiak 2021 urtean.
- Kudeaketa Agintaritzak LGPko neurri eta azpineurri guztien jarraipen estua egin du, exekuzioari buruzko aurreikuspen ahalik eta zehatzenak eta fidagarrienak lortze aldera, eta honekin FEADER eta IRUE funtsen erabateko exekuzioa bermatze aldera. Lan hau oso balagarria izan da 2021 eta 2022 ekitaldietarako gehitu diren FEADER futsa gehigarrien planifikazio zuzena egin ahal izateko, LGPren seigarren modifikazioan barneratu zirenak, 2021ko hasieran.
- Pandemiaren ondorioz Europako Batzordeak proposatutako malgutze-neurriak baliagarriak izan dira, 2021 urtean ere horiek erabili baitira: lekuan bertan kontrolatzeko eta/edo atzeratzeko ehunekoak murriztea, epeak malgutzea, etab.

2021 ekitaldiko berezitasunak (2/2)

- **LGParen seigarren aldaketa** nabarmendu behar da. Aldaketa nabarmenena izan da LGPren estrategia egokitzea trantsizioko epealdiaren ondorioz (2021 eta 2022), eta horrekin lotuta FEADER eta IRUE funtsa berrien egokitzapena. Aldaketa hau 2021eko uztailan onartu zuen Europako Batzordeak (LGPren 7.2 bertsioa).
- **Neurri bakoitzerakoprozedura-eskuliburuak eguneratzea, baita LGPren neurrietarako Kontrol Plan Autonomikoa** ere, LGPren aldaketekin eta FEGAren koordinazio-zirkularrekin bat etorriz. Prozedura-eskuliburuen helburua laguntza-espedituentzako kudeatzeaz arduratzen diren langileentzako euskarri tekniko gisa balio izatea da, eta, edonola ere, izaera bizia dute; horrela, eguneratu egiten dira aplikatzeko den araudian aldaketak egin ahala, LGPan aldaketak onartu ahala edo Erakunde Ordaintzaileari Egiaztatze Erakundearen auditoretzetan gorabeherak antzeman ahala.
- **Jarraipen Batzordearen jarduerari** dagokionez, kudeaketa-agintaritzak **hiru saio** deitu ditu 2021an zehar, horietako bi idatzizko prozeduraren bidez (martxoak 12 eta ekainak 18) eta bat aurrez aurrekoa (abenduaren 17an). Martxoko batzordea programaren seigarren aldaketaren proposamena onartzeko egin zen, eta ekainekoa 2020ko ekitaldiari dagokion Urteko Betearazpen Txostena onartzeko. Abenduko aurrez aurreko saioa modu telematikoan egin zen, Covid dela-eta, eta urtean zehar programarekin lotuta egindako jarduketa guztien berri zehatza emateko balio izan zuen.

Informazioa gehiago:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/osoа/hasiera/>

LGParen Kudeaketa-Agintaritzari kontsultak egiteko:

pdrs-euskadi@euskadi.eus